


Koloretako mundu bat

Helburuak, aukerak, ideiak eta kontzeptuak

1. Edukiontzi bakoitzean zer sartu behar den argi izatea: latak, brik-ak eta plastikozko ontziak horian, papera eta kartoizko ontziak urdinean eta beirazko ontziak berdean. Ontzia ez bada, ez dugu koloretako edukiontzietan sartuko. Janari-hondarrak edukiontzi marroian sartuko ditugu, eta gainontzeko guztia garbigunean edo errefusaren edukiontzian.
2. Elkarlanaren garrantzia ulertu. Denon artean asko lortu dezakegu.



Koloretako mundu bat

● Jarduera hau zertarako da?


Keinu txiki bakoitzarekin ingurumena hobetzen laguntzen dugula ikusteko.

● Zer behar dugu?

Horma-irudi bat zintzilikatzeko espazioa. Eskuekin margotzeko margo horia, urdina eta berdea. Eskuekin zuzenean margo dezakete edo esku, hosto edo animalien itxurako esponjak erabil ditzakete, margoan busti eta zigilu moduan. Margoak erabili beharrean forma ezberdinetako itsasgarriak ere erabil ditzakezue. Edo margoak eta errotuladoreak utz diezaiekezue marrazkiak egin ditzaten. Hori bai, hiru koloretakoak: horia, urdina eta berdea. Hiru kaxa handi ere beharko ditugu, edukiontzia egiteko.

● Zer egingo dugu?

Banaka edo taldean ingurumena hobetzen laguntzeko egiten ditugun keinuak (ontziak birziklatu adibidez) adieraziko dituen horma-irudi bat. Umeei etxetik ontziak ekartzeko eskatuko diegu; ontzi horiek dagokien edukiontzian utziko dituzte eta, trukean, euren eskua estanpatu, itsasgarri bat jarri edo marrazki bat egin ahal izango dute beren ontzia utziko duten edukiontzia kolore berarekin. Zenbat eta ontzi gehiago, orduan eta marrazki gehiago egiteko aukera.



Jarraituko dugu?

Jarduera hau ingelesezko jarduera bihur daiteke edukiontzien koloreei buruz hitz egiten "yellow", "blue", "green", eta ontziak ingelesez aipatzen: box, bottle, brik, can, plastic, paper...

Ekintza hau saio bat edo gehiagotan egin daiteke, hezkuntza artistikoko klaseak erabiliz, bukaera ludiko eta ingurumenarekin loturikoa izanez. Honela aurrek ilusioz jasoko dute.

Koloretako mundu bat

● Jarduera hau zertarako da?

Jarduera honek erakutsiko digu norbanakoen ekarpena besteenarekin elkartzean garrantzitsua bihurtzen dela.


● Zer behar dugu?

5 cm zabalerako eta 21 cm luzerako paperezko tirak (DINA4 batetik 5 irteten dira), horiak, urdinak eta berdeak. Grapagailua edo zinta itsasgarria.

● Zer egingo dugu?

Gela taldean eraikitako koloretako kate batekin apainduko dugu. Umeei nahi duten koloreko tira bat aukeratuko dute eta kolore horretako edukiontzira joango den ontzi bat margotuko dute bertan. Adibidez: tira horian freskagarri-lata bat margotuko lukete, edo jogurt-pote bat, tira urdinean irin-pakete bat, eta berdean marmelada-pote bat.

Horrela edukiontzi bakoitzean zein ontzi sartu behar den gogoratuko dugu. Ondoren, tirak kateatuko dira koloreak konbinatuz, guztiek parte hartzen dutenean zein luzea den ikusiz.



Jarraituko dugu?

Antzeko jarduera egin dezakezue familia eta ikasleekin, adibidez ikasturte amaierako tailer batean.